



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 11koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019-2020 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Agindu horren 30.artikuluaren arabera, laguntza berriak, Ikerketa Orokorrean, ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berriazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2019-2020 ikasturterako.

Kontratu horiek 12 hilabetetarako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, arloak eta lehentasuna zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 29. artikuluko 5. atalak zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoa iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 11a.



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORALS EZQUERRO

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea